

# Txikittto

2015eko abendua

156 zbk.

## Aireratu euskara Eibartik mundura



# Taxis leak



## Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea  
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

## Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Maider Aranberri,  
Ana Aizpurua eta Eibarko  
ikastetxeetako ordezkariak.

## Administrazioa

Marisol Uriarte.

## Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Maider Aranberri, Ainhoa  
Luz eta Ana Aizpurua.

## Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa.

## Copyright-a

Txikitto!

## Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak  
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak  
diruz lagundutako argitalpena



Gipuzkoako Foru Aldundia

- Nola esaten da japonieraz  
"jokalari txarra"?  
- Niquito Nitoco.

Ane Zabaleta



- Ama, bi notizia dakartzat zuretzat.  
Lehenengoa oso ona da. Matematiketan 10  
atera dut.

- Oso ongi, oso ongi- esaten dio amak.  
- Eta zein da bigarren notizia? - galdetzen dio amak .  
- Ba ... lehenengo notizia gezurra dela.

Daniela Flambury



Ehiztari batek esaten dio lagunari:  
- Poliki-poliki lehoiarengana hurbildu eta  
bat-batean .... purruttt!  
- Eh? Grrrr!! egingo zuen ba!  
- Ez ba, atzetik hurbildu nintzaion eta.

Celia Rubio

- Kapitain jauna! Kapitain jauna!  
Ondorutzen ari gara!  
- Hago isilik inozo babalore, txotxolo!  
Hau submarinoa duk eta!!

Alex Oroz

- Amatxo,  
zergaitik dago aita ilerik  
gabe?  
- Oso argia delako eta asko  
pentsatzen duelako.  
- Eta orduan, zergaitik duzu  
zuk hainbeste ile?  
- Jan zopa ! Txolin hori!

June Alday



Egun batean Jaimito aldamenekoari kopiatzen zegoen eta aldamenekoak ez zekien galdera bat eta “ez dakit” ipini zuen... Jaimitok “nik ere ez”. Hurrengo egunean andereñoak zero bat ipini zion eta Jaimitok galdetzen dio andereñoari:

- Zergatik daukat zero bat? Dena ondo daukat eta!
- Badakit kopiatu egin duzula!

Gorka Vila

Andereñoak Jaimitori:

- Txori batek esan dit mozkortuta zaudela.
- Mozkortuta zaudena zeu zara, txoriekin hitz egiten duzu-eta!!

Ane Elorza

Banpiro batek ahotik odola dariola ikusten du bere adiskidea:

- Aizu! Non lortu duzu odol pila hori?
- Zatoz ikusiko duzu!

Kaleko horma bat erakusten dio esanez:

- Ikusten duzu horma hori? Ba... nik ez dut ikusi!!!

Beñat Zuazubizkar



- Andrea, esango al diozu zure semeari ni ez imitatzeke? Amak semearengana hurbilduz esaten dio:

- Jurgi! Zenbat aldiz esan behar dizut leloarena ez egiteke?

Irati Cid

Ume batek aitxixari:

- Ura, ura!
- Ez horren altu! Ez nago hain gorra eta. Esan, ze gaileta mota nahi duzu?

Paul Goiti

Jaimitok aitari:

- Aizu aita, zuk zaplasteko bat emango zenioke ezer egin ez duen ume bati?
- Ez horixe!
- Ah eskerrak! Horrela lasai esango dizut ez ditudala eskolako lanak egin.

Arrate Leyaristi



**JAJAJA**  
**JAJAJA**


# Denborapasak

1 Ker Blanco

7 desberdintasun bilatu



LABIRINTOA



Wilker García


# Lehiaketa



## AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **Olatz Vicuña** izan da. Argazkian duzue saria jasotzen. Liburua eta Eibarko Udalak emandako Coliseorako sarrerak eraman ditu Olatzek etxera. Zorionak!

## LABIRINTOA



BIDALI ERANTZUNAK URTARRILAK 4 BAINO LEHEN.  
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA. Urkizu 11. Eibar.

Izen-abizena .....

Adina .....Tel.....



## GABONETAN ondo ibili!!

**Abenduak 16, asteazkena**

**GABONETAKO KONTZERTUA. COLISEO ANTZOKIAN 19:00ETAN.**

“Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako”-ko ikasleen eskutik.

Sarrera 3€



**Abenduak 26, 27, 29, 30 eta urtarrilak 2 eta 4.**

**ASTELENA GABONETAKO HAUR PARKEA**

11:00- 14:00/ 16:30- 20:30

Sarrera 3€ edo dohainik Eibar Merkatal Gune Irekiaren bonoarekin. Ordu eta erdirako.



**Abenduak 19, zapatua**

**GABONETAKO APAINGARRIAK EGITEKO TAILERRA. ARMAGINTZA MUSEOAN 17:00-18:30**



Eibarko hainbat tailerretan erabilitako materialekin gabonetako apaingarri desberdin bezain politak sortzeko aukera. 20 lagunendako lekua. Doan.

**Abenduak 28, astelehena**

**TXANOGORRITXU ANTZEZLANA. COLISEO ANTZOKIAN 17:00ETAN.**

Txanogorritarrak eta Otsoatarrak aspalditik dira etsai. Otsoatarren familiak aurreko mende hasieratik kudeatzen du BASOA izeneko hotela. Hotel hau Txanogorritarren AMONA zaharrarena da,...

Sarrera 5 €



**Abenduak 24, osteguna**

**OLENTZERO 11:30etik aurrera**

11:30ean: Zatoz Olentzerokin abestera! Kalejira Urkizutik hasita.

Animatu eta baserritarrez jantzita etorri!

12:30etik aurrera Udaletxean: Olentzero umekin egongo da azken eskutitzak jasotzen.

\*Abenduaren 1etik 23ra Pegora zein Portalean Olentzeroren buzoia egongo da.



**URTARRILAK 5, ERREGIEN KABALGATA**

16:30 Ipurua Dantza Garaikidea taldea, Ipurua Gimnasia Ritmika taldea eta Ballet Eibarres taldeen emanaldia Ipurua kiroldegian.

19:00 Erregeen kabalgata herriko kaleetan zehar.





**IZENA**

**ZURIÑE**

**ABIZENA**

**HIDALGO**

**JAIOTERRIA**

**GASTEIZ**

**ADINA**

**25 urte**

- **Itsasoa ala mendia?** Itsasoa.

- **Gozoa ala gazia?** Gazia.

- **Uda ala negua?**

Biak. Udan hondartzara joan gaitezke, gauetan bero egiten du, eta neguan, kalean hotz handia egiten duenez, etxera heldu eta bertako beroa sentitzea, goxo-goxo egotea etxe barnean, ez dauka parekorik!

- **Umetan gehien gustatzen zitzaizun ikasgaia? Eta gutxien?**

Matematika gehien, eta ingurune edo natura gutxien.

- **Kolore bat?** Morea.

- **Kirol bat?** Dantza.

- **Animaliarik ba al duzu etxean?**

Momentu honetan ez, baina txakurra, dortokak, arrainak, perikitoak... izan nituen.

- **Txistek kontatu ala entzun?**

Entzun. Oso txarra naiz txistek kontatzen.

- **Birziklatzen duzu?**

Bai, noski!

- **Telebistako saio bat?**

Sorgintxulo, nola ez!!

- **Pelikula bat?** Titanic.

- **Egun perfektua?**

Konpainia onean ematen dudan hori.

- **Nola dago mundua?** Hankaz gora!

- **Zerk haserretzen zaitu?** Faltsukeriak.

- **Zerk poztu?** Haurren irribarreak.

- **Oporretarako leku bat?** Karibea.

- **Euskara osasuntsu al dago?**

Mmm... erdi purdi!

- **Zer egin euskara bultzatzeko?**

Euskaraz dakigunok erabili, eta ingurukoak euskaraz egitera eta ikastera animatu!

- **Abesti bat?**

Amodioaren eza (Sorotan bele).

- **Abeslari edo musika-talde bat?**

Governors.

- **Opariak jaso ala egin?**

Egin, baina jasotzea ere oso ongi dago!

- **Miresten duzun abeslari bat?**

Juan (Governors).

- **Irakurri duzun azkeneko liburua?**

Kroko, haur literatura, 2 urteko neska txiki batekin batera!

- **Erosi duzun azkeneko diska?**

Sei Urte.

# ZURIÑE HIDALGO

Zuriñe Hidalgo Hesian musika taldeko abeslaria eta musikagilea da, eta horrez gain, ETB1eko "Sorgintxulo" haur-saioko aurkezlea. Oso gazte hasi zen telebistan, 12 urterekin, eta hainbat saiotan hartu du parte: Betizu, Kantuan, A ze banda, Kantugiro... Irratian ere esatari moduan ibili da. Haur Hezkuntzan diplomatua ere bada, eta irakasle moduan jardun du.





Azaroaren hasieran, **URKIZU** eskolan, ikasturte honetako lehenengo "Ezetz asmatu" lehiaketa egin genuen. Oraingoan 4. mailako ikasleek prestatu zuten ekitaldia eta primeran egin zuten. Gaztañerre eguna ere ospatu genuen, abesti, dantza eta gaztaina artean. San Andres eguna ere ez genuen ahaztu, eta jaialdi polita prestatu genuen. Eta amaitzeko, azaroa amaieran, 6. mailakoak Eibarko liburutegia bisitatzera joan ziren.

**ARRATEKO ANDRA MARI** ikastetxetik, kaixo lagunok! Hemen gaude Gaztañerre eta sanandresak ospatu berri; zein ondo pasa genuen denok, ikasle, irakasle eta gurasoak denok elkarrekin! Abenduaren 18an HHko 4 eta 5 urtekoek irteera pedagogikoa izango dute, Legazpiko Mirandaolan dagoen Olentzeroren etxera. Liburuaren altxorra ere abenduaren 1etik urtarrilaren 26ra arte eskolan izango dugu. Eta nola ez, gabonetako oporrak heldu orduko, San Tomas egunean, txistorra jango dugu, eta LHkoekin zinema eskolan izango dute, aretoan. Eta azkeneko egunean, abenduaren 22an, Olentzeroren bisita eta kalejira auzoan zehar gabon-kantak abestuz. Beno lagunok, hurrengoan arte!



## Berdintasunaren astea **ITURBURUN**

Azaroaren 16tik 20ra Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak parte hartu zuten Berdintasun Tailerretan. Eskolako ordutegiak egokitu ziren talde bakoitzak 2 saio egin ahal izateko. Jolas eta elkarrizketen bitartez gauza asko landu zituzten: neska eta mutilen rola, jostailu ezberdinak, etxeko



lanak sexuaren arabera, erabiltzen diren koloreak, familia motak... Ikasleek gustora aritu ziren ekintza ezberdinetan eta poliki-poliki berdintasuneruntz joango gara, seguru gaude. Horrez gainera, egun bikaina izan genuen Iturburuko azoka inguruan ospatzen den jaialdian. Erakusketatik

aparte, Eibarko antzinako abestiak eskaintzen dituzte gure ikasleek.



Azaroaren 12 eta 13an **LA SALLE** ikastetxeko 2.mailakoak Arotz-Eneara joan ziren eta han mendi buelta egiten Margarita

izeneko behiaren istorioa kontatu zieten.

16tik 27ra 2.ziklokoek igeriketa izan zuten. 16an Gaztainerre eguna ospatu genuen eta aitxitxa Karlos etorri zitzaigun gaztainak erretzera. Amaitzeko, 27an, San Andresetan, primerako azoka jarri genuen eta arratsaldean dantza, sokatira, eta Dionisio Kortina harri-jasotzailea etorri zitzaigun.



Urteroko moduan, **AMAÑA** ikastetxean ere San Andres eguna ospatu genuen azaroaren 26an. Umeek ekarritako barazki eta frutekin azokatxo bat osatu genuen eta gurasoak gonbidatu genituen. Festari hasiera emateko lehen hezkuntzako talde bakoitzak bertso bana abestu zuten. Jarraian, haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako ikasleek Courinta, Esku Dantza, San Petrike eta Txulalai dantzatu zuten. Eta festa amaitzeko, txorizo- eta gazta-pintxoak dastatu zituzten ikasle eta familiek

**ALDATZE** ikastetxean pintxo-lehiaketa egin dugu. Giro aparta izateaz gain, parte-hartzaileek lan bikaina egin dute.



# ETXEKO ARTISTA

## Galtzerdi-txotxongiloa

Gabonetako oporrak gain-gainean ditugu eta etxean goxo-goxo egoteku aukera paregabea izango duzue hurrengo egunotan. Ez dakizuela zer egin? Ikusi galtzerdi batekin nolako gauzak egin ditzakezuen!

### MATERIALA

- Kotoia
- Feltroa
- Haria
- Galtzerdia
- Pausoak

### PAUSOAK

- Galtzerdiaren puntatik barrurantz 3 cm moztu. Galtzerdia alderantziz jarri, eta feltrozko zirkulu obalatu josi egin dugun mozketan. 8 cm neurtu beharko du.
- Feltrozko begi beltzak moztu eta kotoiaren gainean itsatsi. Zinta itsasgarria gehitu kotoizko begietan, eta orpoaren kontrako aurpegian itsatsi.
- Orain eskua sartu eta hasi jolasten!!



## Loreontziak kortxoarekin

Ardo botilaren kortxoan zulo bat egin, bertan lur piskat sartu, landaretxoa landatu. Landare batentzako loreontzia izango duzu.





# SUKALDARITZA txokoa

## BANANAZKO PIRULETAK FRUITU LEHORREKIN

Zer prestatu dezakegu banana, txokolate eta fruitu lehorrekin? Ba... piruleta goxo batzuk, umeak energiaz betetzeko!



### OSAGIAK

- ✓ 2 banana
- ✓ 300 gr txokolate urtzeko
- ✓ fruitu lehorrak



### PAUSOAK

- 1.- Neurri bereko banana-xerrak moztu, eta izozkailuan sartu, minutu batzutan, gogortzeko.
- 2.- Urtzeko txokolatea urtu mikrouhin-labean, baina kontuz ibili, erre egin daiteke-eta. Erre ez dadin, mikrouhin-labea 30 segundotan jarri, begiratu nola dagoen, berriro jarri 30 segundo, etab. Txokolatea irabiatu alde guztietatik berdin desegiteko.
- 3.- Bol batean fruitu lehorrak prestatu. Mahaspasak, intxaurrak, almendrak, albertxiko lehortuak jarri, hau da, egunero energiaz betetzen gaituzten fruitu lehor guztiak.
- 4.- Banana-xerrak izozkailutik atera eta sardexka baten laguntzarekin, eskuak ez zikintzeko, xerra bakoitza urtutako txokolatetik pasatu, eta behin xerra guztiak txokolatez blai daukazunean, sareta baten gainean utzi txokolatea gogor jartzeko eta ezer ez zikintzeko. Ondoren, banana-xerra bakoitzaren gainean fruitu lehorrak jarri, eta utzi txokolateari gogortzen.

Piruleta hauek oso hotz jan nahi badituzu, xerra bakoitza izozkailuan sartu 30 minutu. Ordu erdi ondoren, jateko prest egongo dira!

## ZIZARE DIBERTIGARRIAK



**Ti-ta!**

Brotxetak egiteko palotxoetan mahatsak sartu banan-banan, begiak txokolatez hornitu eta zizare dibertigarria eta osasuntsua prest izango dugu jateko! On egin!



## Beñat Jauregi Argoitiaren kartelak irabazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako “Ikastetxean nola gutxiagotu daiteke hondakin-sorrera” kartel-lehiaketa

Lehiaketaren xedea, ikasleek ikastetxeetan hondakin prebentziorako egiten eta egin ditzaketen ekintzak isladatzea da.

Lehiaketan 100 gazte baino gehiagok parte hartu dute, teknika ezberdinetako kartelak aurteztuz, besteak beste, pinturak eta collage-ak.

6-7 urte arteko kategorian, saritua Beñat Jauregi Argoitia J.A. Mogel ikastolako ikaslea izan da. Oso pozik dago lortutako sariarekin. Beñatek azaldu digunez, “*tableta eta diploma oparitu didate. Maialen nire arrebak ere parte hartu du lehiaketan eta bere kategorian aipamen berezia lortu du. Oparia biontzat da!!!*”

### **ARIES** (martxoak 21-apirilak 20)

IKASKETAK: Andereñoak azaldutakoa ez da buruan sartzen. AMODIOA: kolonia berri horrekin baliteke bera ohartzea. OSASUNA: katarroa kentzeko onena berbena ukendua.

### **TAURUS** (apirilak 21-maiatzak 21)

IKASKETAK: Azterketarako ikasi eta ikasi ibili ondoren eman du bere fruitua!! 9 bat!! Bikain!! AMODIOA: Zugandik horrelako hitz itsusiak entzuten baditu gutxi duzu egiteko. OSASUNA: primeran.

### **GEMINIS** (maiatzak 22-ekainak 21)

IKASKETAK: Mendira joateak, ingurugiroko gaiak ikasten lagunduko dizu. AMODIOA: Begirada ugari... gustoko zaitu. OSASUNA: Osasuntsu jaten ari zara eta indarrez topera zabilza!!

### **CANCER** (ekainak 22-uztailak 22)

IKASKETAK: Matematikak burukomin ugari. AMODIOA: Muxu emango dizu laster. OSASUNA: Kirol piskat egitea komeni zaizu, ugertuta geldituko zara eta!

### **LEO** (uztailak 23-abuztuak 23)

IKASKETAK: Bost bat besterik ez, gehiago ikasi beharra daukazu. AMODIOA: Zurekin hitz egiteko desiatzen dago. OSASUNA: Txokolatzeko bokatak egunero, ez da ona!!

### **VIRGO** (abuztuak 24-irailak 23)

IKASKETAK: Etxekolanak txakurrak jan dituela, edarra aitzakia AMODIOA: Gutun bat idazten hasi zara berarentzat... zer esan? OSASUNA: kalanbreak hankan, medikoarengana joan beharko duzu.

### **LIBRA** (irailak 24-urriak 23)

IKASKETAK: Holan jarraitzen baduzu, ikasturtea ti-ta! AMODIOA: Zure mahaian mezu bat agertuko da arkatzez idatzirik. OSASUNA: Fruitu gorriak jatea komeni zaizu.

### **SCORPIUS** (urriak 24-azaroak 22)

IKASKETAK: Ikasturtea luze egiten ari zaizu, zergaitik ote? AMODIOA: Berarekin jolastera hurbildu beharko zenuke, bestelan jai! OSASUNA: Beti korrika zabilza, zeren atzean?

### **SAGITARIUS** (azaroak 23- abenduak 2)

IKASKETAK: Lagunekin zoragarri zabilza, asteburuan ere eurekin gelditu! AMODIOA: Ez zaizu batere gustatuko zure begiek ikusiko dutena. OSASUNA: Beltzune ugari dituzu, zaindu zaitez!

### **CAPRICORNIUS** (abenduak 22- urtarrilak 20)

IKASKETAK: Non ote daude ikasturte hasierako boligrafo gorri eta urdina! AMODIOA: Ze pozik zabilza, maiteminduta??? OSASUNA: Indartsu eta gogotsu zabilza, aurrera!

### **ACUARIUS** (urtarrilak 21- otsailak 18)

IKASKETAK: Gehiago saiatu behar duzu. AMODIOA: Besarkada eta muxu emango dizu, konturatu orduko! OSASUNA: Belaunean min, reposoa egiteko ordua.

### **PISCIS** (otsailak 19-martxoak 20)

IKASKETAK: Zure ahalegina haundia izaten ari da!! AMODIOA: Irrifarre horrek zoratu egiten zaitu. OSASUNA: Negu hontan ez ahaztu berokia goraino lotzen, bestela estul hori...

# Euskararen eguna argazkitan



Amaña ikastetxea



Arrateko Andra Mari ikastetxea



Urkizuko eskola



J.A. Mogel Ikastola



La Salle Isasi ikastetxea



Mintzodromoa



Horma-irudia



Euskararen aldeko mezu ugari



Globoak askatzeko prest



Pozik globoekin



Zumba



Mezuak irakurtzen




Zumba



### **BURUA GALDU ZUEN JIRAFÁ (6-8 URTE)**

Burua galdu du jirafak. Zer egingo du orain? Leontzio lehoi magoak lagundu nahiko dio, lepo luzearen amaieran buru berri bat ipiniz, baina ez da oso mago abila, eta hanka sartuko du, behin eta berriz.



### **PANTXIKE, HIRIKO SORGIÑA (8-10 URTE)**

Pantxike hiriko sorgin bat da. Gaztea zenean Sorginmendi muinoko baserri zahar batean bizi zen. Baina urteak joan ahala, hiri Erdiko etxebizitza eroso batera aldatzea erabaki zuen. Besaulkia beheara, besaulkia gora, hegan, hegan edonora! Eta Pantxike besaulkian eroso eserita terrazatik barrena desagertu da zerua zeharkatuz...




### **FANGO LAGUN ONA (10-12 URTE)**

Petra, Troy, Tristan, Tom, Kazan... dira protagonistak haurtzaroan izan zituen txakurren izenak. Guztiak dira kaleko txakurrak eta egunero zaintzen ditu. Haiekin hazten eta heltzen da eta adiskidetasun estua du. Fango du gustukuena, familiaren bihotza samurtzea ere lortu duen animalia. Antoniok animaliekin elkar ulertzeko gaitasun bereziak ditu eta protagonistak hura izango du lagun leial, txakurrak alboan dituela, hiri-bazterretan egunero biziko dituen abenturetan.




### **ZUBIBERAKO ZUBIA (6-8 URTE)**

Zubiberako zubizaina zakarra zen zubia pasatu nahi zuten guztiekin. Txoriak, untxiak, sugandilak edo jendea izan, zubizainari berdin zitzaion. Adeitasunari buruzko ipuin bat.



### **AI, XIMUN, XIMUN! (8-10 URTE)**

Txirrixt sagua munduko animalia guztien lehendakaria da, eta Burkail Zuri izeneko mendi erraldoiaren oinera deitu ditu animalien ordezkariak, batzar horretan garrantzizko gauza bat erabakitzeko. Ximun mutikoa beldurrak airean dago. Zertarako elkartu ote ditu Txirrixtek animalia guztiak?



### **TAPPER BIKIAK GERRAN (10-12 URTE)**

Claudia eta Reese neba-arreba bikien abenturetako lehena, Geoff Rodkey gidolariak idatzia eta Danele Sarriugartek euskaratua. Umore alai eta ganberroa erakusten digute New Yorkeko gaztetxo hauek, elkarri gerra deklaratzeko. Tartean izango dira eskolako haserreak, arrain ustelak, gurasoekiko harremanak, bideo-jokoak...

# GAZTEA IZAN NAHI DUEN SORGINA

**B**ehin batean Distiratsu izeneko sorgin bat zegoen. Berak diadema arrosa bat zeukan, soineko morea eta hile marroia. Katu beltz bat zeukan Beltz izeneko, sudur zuria zeukan eta txiki txiki zen. Distiratsu oso zaharra zen eta gazte izateko edabe bat egin nahi zuen.

Sorginak liburu magiko bat zeukan, eta gazte izateko edabe bat bilatzen ari zen liburu magikoan. Liburuan osagai hauek irakurri zituen:

- Barraskiloaren listua
- Hosto moreak
- Lore arrosa
- Igel urdinaren hankak
- Zaldi magikoaren malkoa

Baso batera joan zen eta han suge bat topatu zuen eta galdetu zion:

- Zuk badakizu non topatu ahal dudan zaldiaren malko magikoa ?

- Bai badakit, segi hemendik 50 m-tara eta biratu eskuinera eta zaldi magikoa topatuko duzu. Bakarrik negarrazi egin behar diozu eta malkoa lortuko duzu.

Sorginak sugeak esan zuena egin zuen eta zaldia topatu zuen.

Lurrean topatu egin zuen arranoaren luma batekin kili-kiliak egin zizkion.

Zaldia barrezka hasi zen eta barregura handia zeukan negarrez hasi zen.

Sorginak aprobetxatu egin zuen malkoa hartzeko eta botila batean sartu zuen.

Gero basora sartu eta hosto moreak hartu zituen. Mendi puntan lore arrosa

hartu eta putzu batera joan zen eta ez zuen igelik

topatzen eta azkenean, harri baten azpian igel urdina topatu zuen eta pote arrosa batean sartu zuen.



Liburua irakurri eta barraskiloaren listua topatu zuen.

Barraskiloaren listua hartu eta gero ez zekien non zegoen Beltz.

Bilatu eta bilatu ez zuen topatzen eta azkenean basoan topatu zuen. Etxera joan eta osagai guztiak sartu eta hitz magiko hauek esan zituen:

- Zur ta lur, lur ta zur, ni Distiratsu izenez gaztea bihur.

Hitz magikoak esaterakoan ez zen gaztea bihurtu basoko sugeak gezurra esan ziolako. Sorgina konturatu zenean asko haserretu zen eta sugearengana joan eta esan zion:

- Ez baldin badidazu esaten non dagoen malko magikoak dituen zaldia, barraskilo bihurtuko zaitut eta gero zapaldu egingo zaitut.

Esan zuen sugeak:

- Bale, bale, bale, esango dizut, 100m atera eskuinera eta zaldi zuri bat topatuko duzu.


Sugeak esandakoa egin eta sorginak malkoa hartu eta bere etxera joan zen.

Osagai guztiak nahastu, hitz magikoak esan zituen eta orduan gazte bihurtu zen zimurrik gabe.

Ala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan.

Maite eta Mariana

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.  
**MEREZI DU...**



zu margolari!